

giza-maitasunaren billa asi naz
neure gogo saminduan.

Eta,
lotsaturik,
(zabarkeriaz minduta)
izakera barria aurkitu dot
neure izatearen barren-ondarrean,
neure barru ezezagunaren
ezkutu ixillean.

...Eta, ibilli nabil,
illuntzeko bakean,
gizarte saminduaren
ezbear eta atsekabeen artean,
zoritxar guztiak arindu gurean.

Aurre Apraiz

NEGUA DUN

Negua dun, bai; ta, i, norantza?
Nola ikustatzen audan!
Aurrean dut ire iduria,
neguz, zorakor, egitan.

Esia daukan aintziñean,
eskuitik gora mailladia;
zut-zut doa lerdin igoaz,
elurño-tantoz txuria.

Gorri oa i, urdin ta musker,
oskiz oiñak, ta ginbailla;
bi ardiño ditun atzean,
gora nairik bide billa.

Zugaitza dun, ezker, liraiña,
ta ur-isola txit apartsu;
inguruka doan mailladi
gaiñean, zelai elurtsu.

Bi etxe zelaian, gain txuri,
urbil, ur-gaiñez zubitxo
zotz-aga txikiz ornitua,
dan-dana lanbrotan txairo.

Urrun, zeru-goia, etxeak
ats epel oro estaduz;
urdin erdian gurutzea,
goi-giroak ondo leunduz.

Otz aiz, neska, ta sua opa:
mailla gaiñeko bi etxeak
—oi epelaren muxu bigun!—
bafaz dauzkate ke-bideak.

Ik ere, oi!, jo zan araiño,
otz bait da, otz-otz atean.
Fedearen sua dun goxo
barne izkutu ixillean.

A. O.

UMEEN LEHENENGO JAUNARTZEA (1979)

Jendez betea dago
Xemeingo eliza,
berak ematen digu
denoi geriza;

oraintxe entzun dugu
Jainkoaren Hitza
berak zuzendu dezan
guztion bizitza,
poztasun iturritik
edaten gabiltza.

Zuk hartu gaituzu ta
zabalik besuak
orain Zuretzat doaz
kantu ta bertsuak